

EDITORIALA

Jokin Apalategi, Uztaro Aldizkariaren zuzendaria

Uztaroren zenbaki berezi honek, Biarritzen 2003ko uztailearen 9-10 egunetan, UEUko Soziologia sailburu den Mario Zubiagak *Zôon politikon berririk ba ote? Gizabere erreflexiboa* gaiaren inguruan kudeatutako gogoeta-jardunaldietan jorratutako lan batzuk jasotzen ditu. Aristotelesen *Ta Politika* liburuan agertzen den esaldi hau, gaurko gizartean nola interpretatu behar den jakitea izan zela helburu esan genezake, jardunaldietako partaideek aurkezturiko lanak irakurri ondoren. Adituek diotenez, Aristotelesen lan *akroamatiko* horietariko baten aitzinean gaude, hots, eskolaren barruan edo Lizeoan entzule jakitun eta paratuei emandako ikaskizu-netatik entzuleek idatzi eta autoreak berrikusitako apunteak ditugula. Gaur guregana heldu diren forman, kontu handiarekin eta pausatuki hautatuta autoreak ondare egiten utzi zituela, alegia.

Azpimarra dezagun, Aristotelesen lan hau, hiritar tradizio gaztea, hots, hainbat gorabehera barna, bereziki Atenasen, **konstituziodun erregimenean** gauzatu zena, baliatzeko intentzioz idatzi izan zela. Ordura arteko bere lanetan, Platon maisuaren lerroa gordeaz harekiko mirespina erakutsia zuenak, oraingo lan honetan, Platonekiko haustura nabarmentzen du. Platonen *Errepublika* liburuan dagoen teoria politiko dogmatikoaren eta bereziki, *kallipolisaren* edo Hiri idealaren kritika gupidagabea egiten baita. Izan ere, Platonek, demokrazia (erabakitze, epaitze eta legisferatzeko botere bezala ulertuta, aurrez inori zor ez diogun konstituzioa, alegia), erregimen ahal guztien arteko konparazioan, tiraniak bakarrik desegokitasunean gainditzen duela kontsideratuz, eta ondorioz aukera ideal bezala zeharo baztertuz, ontologikoki hierarkizatutako gizarte batera berriz ere itzultzea defenditzen baitu.

Platonek proposatzen zuen erregimen errepublikarraren izaera **apartari**, galduriko hiritar moralitatea berreskuratzeko jokabide zen hainbatean bakarrik justifikaturik egon zitekeenari, Grekoek **konstituzioaren ideia** (monarkian bezala aristokrazian edo errepublikan gauza daitekena) definituz eta pratikatuz asmaturiko **zibismo ordanarioa** kontrajarriko dio Aristotelesek, hots, portaera kolektiboak arautzetik sortutako aipamen abstraktuei edo legeei hiritar guztiek aitortu beharrezko obediencia goraiapatuko du.

Bestalde, *Ta Politika* liburuan, politika gaiari **antolagaiztasuna eta autonomia** izenondoak gehitzen zaizkio. Zer adierazten da bi termino horiekin? Antolagaiztasunarekin gizatiar kolektibitateen barnean sortzen diren agintaritza-mota desberdinen artean agintaritza politikoa besteak ez bezalakoa dela adieraztera dator. Hirian eraikitzen den agintaritza, familia arteko harremanek eratzen duten agintaritzatik desberdina dela, alegia. Hala ere, bata bezala besteak, parte diren errealitateen naturan errotuz jarduten dutela onartzen da. Hiriak antzekotasunik baduela ere familiarekin, odol-harremanez definitutako kolektibitatearen esanahi mugatuan ulertuz, bietan autoritatea izaki libre bezala beste izaki libre batzuetan oinarrituz altxatzen dutenez. Baina, ikuspegi poetikoari errazegi toki emanez

buruzagiaren eta aitaren boterea konfunditzen direnean, bi eratako diferentziak ez-kutatzen dira. Horietarik lehena hauxe da: senar/emazte harremana politikoa baldin bada, horretan ematen den autoritatearen gauzapena, itzulirik gabekoa dela, Aristotelesen aburuan, aldiz, hainbat Hiritan, gaurko gobernariak atzoko gobernatuak direla eta, alderantziz; era berean, gurasoek euren haurrengan duten autoritateari ezagutzen zaion ezaugarri erregetiarra hiriko autoritateak daukan behin-behinekotasunak kontrabalantzeatu egiten du. Hala eta guztiz, seinالاتu ditugunak, neurri batean, diferentzia batek fundatzen ditu: ezkon-tiar eta gurasotiar agintaritzak naturatik eratortzen dela, esanahi arruntenean, gizon helduak familia gobernatzeko duelarik gorputzez sendo izanik esperientziak erakutsitako zuhurtasun puska bat edukitzearen baitu; aldiz, magistraturak eraikitzen duen agintaritzak, hiritarrek kolektibitatearen bizitza arautuko duen agindu bat onartu arte eskaintzen duten parte-hartzeak, epaileak lantzen duen sententziak, estrategak bataila eremuan erabakitzen duen maniobrak, euren autoritatea Hiritar konstituzioak formalki aurrikusitakotik jaso duenagatik eta hiritar eginkizun horretarako sortu duen instantzia egokiagatik dute.

Gizakiar gizarteek politikazko agintaritzaz gain beste motakorik ezagutzen dute: adibidez, bere etxea (oikos) kudeatzen duen nagusiarena. Jarduera hori gobernatzeko duten arauak (ekonomikoei) beste izenondo bat ere gehitu behar zaie (domestikoei), eta gisa horretan, mundu berrian, Estatu-nazioen gorabeherak aipatzeko erabiltzen dugun politika bereizirik gelditzen zaigu. Gure zerbaki honetako lanak prestatu dituzten ikertzaileek, "zoon politikon" jardunaldietan, agintaritzak politikoen alorrean jardun izan dutela esango genuke. Zer nolako ikuspegietan murgildu izan diren laburbiduz aipatu dut. Irakurleak, ondotik egin dezakeen hoberena, lan jakin-garri horietan banan-banan sartzea du. Anitz profitatuko duela ziurta dezaket.

Zoon aktiboa eta pasiboa: Gizaberea aska gozoan lana, Gizabere indibidualaren planteamendua beste abiapuntu batetik aztertzea dator, hots, indibidualismoa eta indibiduazioa bereiziz egin nahiko da. Hipotesi hori egiazkoa balitz, indibiduazioak gehiago lukeela sozialetik ideologiko, ekonomiko eta politikotik baino aurreratzen zaigu. Duela hogeita zazpi bat urte, kapitalismoaren baitan krisi kultural bat irakurritz, Daniel Bell-ek adierazten zuen diagnostikoaren arabera, berriztasuna eta beti berria denaren bilakaeratik sortu behar zela gizaki modernoaren askatasuna. Eta gizakia bera ere bere buruan abangoardia bilakatuko zela. Horrela jardunez gizakia izango zen hura ere planifikatzeraino ailegatuz. Gizarte tradizionaleraino heldu behar zen gizarte modernoan. Eta identitate-mota horrek nahitaezko desinstituzionalizazio-prozesua eragingo zuen. Hona ailegatzean autoreak galdera bat plazaratzen du: duintasuna ote da agian, XX. mendeak gizakiari eskaini dion opari bikainena? Erantzunak, askatasuna vs segurtasuna dilemara garamatza. Gizatasunaren fikzioarekin topo egiten dugu. Ignatieff-ek dioenez, «XX. mendearen amaierako jendea gizaki guztiak barnehartzeko inolako intentziorik ez zuen hizkuntza unibertsal baten oinardekoak gara: eskubide-berdintasunarena, alegia». Hiritartasuna orduan, ez da status bat, ez da eskubide-bilduma bat, atzerakadak eta aurrerakadak jasan ditzakeen prozesu bat baino. Horrela konprenitzen dugu, hiritartasun statu dezente bat lortzeko oso garrantzizko izatea, bizitzaren loterian, estatu egokian jaiotzea. Ulrick Beck-ek, teoriarik osasuntsu baina funtsean zombien aurrean aurkitzen garela idatzi du. Topos hauen zombitze-prozesuari bakoitzaren biografiaren eraikuntza gaineratu behar zaio. Gizarte modernoan,

oso legegilea da. Bauman-ek proiektuz betetako modernotasun horri solidoa deitu dio. Egungoa, ordea, likidoa litzateke. Gaurko hiritar “inpekableak” justiziaren eta politikaren arteko talkak ekidin nahirik darama bizitza. Hiritar horrek, bestalde, dena dohaineko izan behar duela uste du. Eskuineko edo ezkerro bertsioetan, noski. Gizarte aurreratuetan, sektore bat bada, euren biografia aztertzen dutelarik inori zorrik aitortzen ez diotenena. Eta hau guztia gutxi bada, eskubideak baizik ikusten ez dituen individualismora heldu gara. Ez ote gaude beste zibilizazio baten atarian? Autonomia subjektiboa lantzeko desioak eta eskubideen hedapenak, beste hainbat fenomenorekin batera betebeharrak zibikoak hustu egin dituzte. Egoera apolitikoa despolitikoa baino kezagarriagoa da. Egungo zôon politikon horretan desertzio forma ugari dago, baina denak norbanakoan oinarrituak dira.

Zôon-aren esparrua: Gizaberea saroi publiko aldakorrean lana, gizarte zibila, esparru publikoa, eta kultura politikoa bezalako kontzeptuak mundu egoera berritik gogoetatzera dator.

Estatua eta Merkaturia ekonomia-gune nagusi ziren garaiak gairak ginditurik ikusita, ekonomiaren globalizazioak ordura arteko kapitalismo garaile eta ahalguztiduna kontrol sozialetik eta politikotik kanpo utzi izana da egin behar den konstatazioa. Gizarteko sektore ahulenak helbiderik gabe aurkitu dira. Politikagintza bera gizartetik urrundutako jarduera antzera hautematen da. Politika eta gizarte arloko proiektu utopikoak desagertu egin dira apurka-apurka ekarri zituen industria-gizarte ereduarekin batera. Berreraikuntzaren bidean, demokrazia ordezkatzailetik harago joanez, partaidetza bilakatu da elementurik funtsezkoena. Eta, “gizarte zibila”, “esparru publikoa”, “Hirugarren Esparrua”, “esparru publiko ez estatala” eta antzeko kontzeptuak parte-hartze zuzenaren ideiarekin lotu dira. Baina zer da egia? Esparru zibilak ez daukala benetan bere irudikapen idealetan agertzen duen homogeneotasunik, hasteko. Hala ere, abiapuntu eta baliabide kontzeptual interesgarria izan daiteke. Esparru publikoaren ezaugarriak aldatu egiten dira toki batetik bestera eta lekuan lekuko historiak eta tradizioak berriz interpretatzen dute haren esangura. Sozialismo errearen eta utopikoaren porrotaren karietara, errepublikanismoa liberalismoaren alternatiba gisa geroz eta gehiago nabarmentzen doa. Esparru publikoaren kritikak, gatazkaren eta boterearen eredia hartuko du abiapuntutzat. Eta esparru publikoaren barne bi ikuspegi bereiziko dira: burgesa eta herritarra. Masa-demokraziaren eta Ongizate-Estatuaren sorrerarekin, gizartea eta Estatua arian-arian nahastu egin ziren. Gizartea, mundu ez hertsatzailea, boluntarioa eta aurrepolitiko —beraz, pribatu— gisa irudikatzen da. Natu-ra/kultura banaketa binarioa soziologia politikoaren pentsamendu politikoaren dikotomia nagusiei atxikirik dago, hala nola pribatasun/publikotasun, gizarte zibil/Estatu, modernitate/tradizio oposizioetan. Habermas-ek esparru publikoa Estatua eta gizarte zibilaren artean kokatuko du. Baina mendebaldeko herrialdeetan sortutako esparru publiko ofiziala baztertzeko esanguratsuen gainean eratuko zen sistematikoak: generoa, klasea, herri-kultura tradizionalak, etabar. Harrezkero publiko burgesaren eta gainerako publikoen arteko ohiko harreman gatazkatsuak izan dira. Gaur egungo pentsamendu politiko kritikoaren baitan hiritartasunaren nolakotasuna, “politika egiteko” gaitasunean oinarritzen da. Eskubideak alderdi materialetik ez ezik, eduki-dimentsio sinbolikotik ere aztertu beharra dago. Kontuz ere prozesu asimetrikoak irekitzearekin, desberdintasun sozialak nagusi diren gizarteetan eztabaida publikoak talde menperatzaileen alde makurtzen baititu. Alternatiba kontra-

publikoak publiko nagusiek jarritako bazterketari erantzuteko sortzen direnez, esparru propioak irabazten ahalegindu behar dira. Publikotasun estatalaren oinarrian sustraiturik egon diren ikuspegi integratzaile eta indibidualistak eragotzi egin dute gizartearen heterogeneotasunaren onespina eta publiko izateko asmoa. Eguneroko bizitzaren esparru txikietan bizitza publikorik ote dagoen galdera ere mahaigaineratuta daukagu. Mikroesparru publikoak gizarte-mugimenduen osaketaren ezaugarri garrantzitsua dira. Baina mikroesparruek ez dute agortzen publikotasuna. Meseoesparruek ere hor daude jendez beteta. Bestalde, publikotasunaren irudikapena ezin da behin betirako definitu. Ikuspegi errepublikarrak eraginkortasun kritikoari kentzen dizkion ahulguneak dauzka oinarri-oinarrizko argiketan. Ongi komunaren ideia ezin da aurredefiniturik aurkeztu, gizakien eta taldeen gaiak, interesak eta ikuspuntu desberdinak aldeztu aurretik murriztu eta zokoratu gabe. Nazio menperatuetan, genero-harremanetan eta merkatuetan jasandako biolentzia sinbolikoa, "isilagoa" izatean —publikotasunetik at kokaturik egotean— bortitzagoa izan da. Masa-hedabideen garapenak, publikotasun-forma berria sortzen du. Esparru publikoa, maila idealean, komunikazioaren esparrua da, informazio eta iritzia trukerako gunea. Egitura mediatikoak ez du informazio hutsa hedatzen, modu industrialean ekoiztutako eta kontsumitzeko ezagutza-forma berria baizik. Gizarteak ez dauka berezko "kontzientzia kolektiborik". Harrera prozesuan ere, botere-egitura berriak, diskriminazio-forma berriak eta gatazka berriak eratzen dira gure gizarteetan. Aldi berean, esparru publiko transnazionala osatu eta indartu egin da pixkanaka. Hirugarren Esparrua aipatzen delarik, jarduera sozialeko eremua egintza politikorako eta autogestiorako egokia den esparru publiko "boteredun" egin nahi da. Hirugarren Esparruaren kontzeptuak ere gizarte zibilarenak edo esparru publiko bakar eta biltzailearenak izan zuten akats bera erakusten du.

Zōon andro-ginos: Gizabere arra eta emea, politikan berdin? lana, emakumeek eta gizonen politikan duten parte-hartze ezberdinaren gaiari erantzutera dator. Bidenabar esan dezagun, Aristotelesen aburuan ez litzatekeela plateamendu hau zilegi. Izan ere, emakumeak ez baitziren inoiz subjektu politiko izateko gai. Baina, hau da, hain zuzen, Biarritzeko jardunaldien erronkak bete beharrekoa. Artikulugilea kulturarteko ikuspegitik abiatzen da emakumeen eta gizonen arteko botere-asimetria aztertzerako. Eta bat-batean digu, Gizabere arra eta emea politikagintzan berdin ez aritzeko oztopo politiko eta kulturez arituko naiz. Ikertzaile feministek aski frogatua dute bizitza pertsonala, familiarra eta sexualaren parte handi batek botere-bereizketa inplikatzeko duela gizonen eta emakumeen artean, zapalkuntza eta abusoa ahortzi gabe. Noizbait eta nonbait izan al duten botere-parekotasunik galdetzen da. Zaila da erantzun biribila. Produkzio ekonomikoaren moldeen arabera aldakorra baita. Bestalde, antropologia feministak edozein gizarte genero-sistema bezala ikusten du. Generoa harreman sozialen egitura litzateke, hots, generoa gorputza eta biologia inplikatzeko dituzten praktika sozialen sortzailea litzateke. Emakumeen botereari dagokionean, kontuan hartu behar dugu ez direla benetako herritarrak izan, ez dutela ordezkariak aukeratzeko eta ordezkari legez aukeratuak izateko eskubiderik izan. Ilustraziotik aurrera misoginia erromantikoa deitu dena landu zela. Emakume idealaren fikzioa asmatu zuten (emakume derra, etxezalea, etxeko erregina). Naturalizazioaren bidez argudiatu izan da, hots, ezberdintasun sozialak ezaugarri biologikoen bidez azalduz. Gaur egun, birnaturalizazio-prozesu batean sarturik legoke emakumea. Horren kontra feminismoak, oinarritzko esku-

bide batzuk aldarrikatu ditu betidanik. Beraz, feminismoa, Ilustrazioaren “alaba” ez desiratutzat “hartu beharko genuke”. Gaur egun, botereaz edo botere ezaz hitz egitea politikaz hitz egitea baino harantzago doa. Emakumearen parte-hartzea elkarte hiritarretan, auzo- eta guraso-elkarteetan, elkartasun eta boluntarioen elkarteetan politika formalak baino handiagoa da. Ondorioz, gaur egun, ere emakumeen eta gizonen arteko botere-asimetriak handia izaten jarraitzen du. Nola berdinu burutzerakoan, alternatiben artean, kuotak dauzkagu. Baita emakumeen ekimen-mota propioak ere. Hala ere, feminismoa makrodiskurtso politiko gisa gehiegizkotzat jotzen da. Emakumeen lan-proiektuetan edo proiektu pertsonaletan gizonen babesa topatzea askoz urriagoa da. Emakumeek egiten dutenak ez dakar onarpen berbera. Zerk oztopatzen du gaur egun ere politikan parte-hartze berdintzailea? Matriarkatua ezbaian dugu. Emakumeek kultura horretan zuten lekua galdu egin zutela esan da gupida eta justiziarik gabe jardun zutelako. Mariren esangura aztertzean esaten zaigu, sinbolo izatetik baino harago bilatu behar dela, hots, izen asko, itxura asko, ahalmen asko, espazio asko delako. Egile batzuek errebeldiarekin ere lotzen dute Mari. Arauak apurtzen dituzten figura emak agertzea ez da arraroa. Euskal kulturari lotu berri da materialtasuna (etxea, gure kasuan) gizonekin eta espiritualtasuna (sua) emakumearekin.

Politika erreflexiboa. Praktika eta errepresentazio garaikiderako ikerketen agenda lana, politika gizartean auzi bezala plazaratzean, jokoan sartzen diren atal nagusiak izendatuz gogoetatzera dator. Honela dio, batzuentzat herritarrek egindako prozesuak dira eztabaidagai; besteentzat, elite politikoei, boterean daudenei egiten dutena. Baina hori bezain garrantzitsua da aztertzea gizarte garaikidean kokatuz herritarrek politikarekiko duten irakurketa, politikoei dutena, nahiz politikaren eremuarekiko dutena, baita herritarren jarrera eta portaera horien zergatiak jakitea ere. Gizarte garaikidearena zer den? Interes-taldearen liberalismoa, populua-aren subiranotasuna galtzea, herritarren pribatura biltzea, res publica edo gauza publikoaren berdefinizioa, besteak beste. Artikuluaren gainerakoa hiru ataletan garatuko da. Hasteko, Gizabereari buruzko oharra egingo dira. Horrela esango zaigu politika gauza publikoarekin lotua dagoela, eta publikoaren auziak eztabaidatzen dituela. Horretarako gizakia berez badela politikoa, baina gizakiek ez badute praktika politikoa parte hartzen, alegia, esfera publikoa ez bazaizkio hitza eta ekintza errespetatzen, populua ezereztatua gelditzen dela. Arazoa argi dago politikaren subjektuak elite gobernatzailerakoak egiten direnean, eta bereziki, korporazio ekonomikoetako datozenean, herritarrei aukera bakarra merkatuan eman-go baitzaie, baldintza batekin: kontsumoaren subjektuak izatea. Horrela ordezkari eta ordezkatuaren artean hitzartutakoa apurtu da. Ondotik politikaren errepresentazioak eztabaidatzen dira. Gizartearen errepresentazioak ez dira munduaren irudi leialak, ez dira munduaren isla, eta analistaren ekinbideak gidatzen dituzte. Eta bereziki azpimarratzen dena: ikerlariak edo zientifikoek agentzia bat gehiago direla gizarte-borrokan. Praktika eta errepresentazioaren artean, ezagutza eta esperientziaren artean, haustura bat bizi dugu: gizarte mugimenduan dago, luza-roan neutralizatuak egon diren errealitateak lehertu eta plazaratu egin dira, oro har, bloke-politikak petrifikatuta eduki dituenak. Honezkerok esaten zaigu, marko epistemologiko berri eta zabalagoan kokatu behar direla irakurketa eta kritikak: ikuspegi moralak ezezik, beste balio anadana bat ere kontuan hartu beharra dagoela. Indibidualizazioa eta modernizazio erreflexiboa gizarte-zientzien erremu berria

izan daitezke, errealtate eta harreman berrien arketipoa, hots, mestizoa, alda-korra, indeterminatua. Alta, historiaren amaiera aldi historiko baten amaiera bezala ulertu beharko genuke. Orainaldiarekin geratu gara larrugorrian. Iragana ere gertatzen zaigu, eta etorkizunari ezin dakioko hutsetik ekin. Amaitzeko, indibidualizazioa berriro itzultzen da. Indibidualizazioak ez du ez autonomia ez atomismoa adierazten, orain arteko gizarte-ereduaren akabera baizik: isilpeko iraultza kulturala, orain arteko familia nuklearra, lanbidearen gizartea, nazio ordenatu eta determinatua, ziklo biografikoen ziurtasuna, zientzia eta teknologiaren errugabetasuna, klasea eta alderdi politikoa, horien guztien bilakaera baizik. Gaur egia da, hala ere, indibidualizazioarekin ez direla askatasun-prozesuak egitate bilakatu, baina identitateak banakakoek elkarrekin bizitzan akordaturako prozesuetan materializatzen ahal dira, aurrezarritako markorik gabe eta egunerokotasunean, determinazioarik gabe eta egun handia itxaron beharrik gabe. Bestalde, ordea, teoria politikoez, eta ez soilik marko konstituzionalez edo gobernu politikoez, dinamika propioa duten askatasunei, esperientzia egikaritupei, identitateak sortzen uzten dieten askatasun eta esperientziei ez diete keinurik egiten, eta sekularizazioarekin ahalbidetu gizarte armonikoa simulatu nahi dute herritarrei ezagunak zaizkien hitz-moldeekin hazkunde ekonomikoarekin, instituzioekin, hauteskondeekin, kohesioarekin, subiranotasun eta lurraldetasunekin. Itxaropena mugimendu sozial berriek, horien eboluzioak eta parapolitikarekiko lehiak baldintzatuko baitituzte gizarte indibidualizatu eta globalizatuetan hartuko diren orientazio politikoak eta konfiguraturako diren espazio posibleak. Hor itxaron daitezke aldaketa sustantibo bakarrak.

Parte-hartzea gizarte garatuetan: Hirugarren Esparruaren argilunak gaur egun lana, gizarte zibila, Estatu eta Merkaturia hirukotearen harremanak eta diferentziak ikertzera dator. Ongizate-Estatuaren urrezko garaian gizarte zibila lokartuta egon izan dela esango zaigu, zeren estatuak bere gain hartu baitzituen gizarte zibilarenak diren funtzioak ere. Horrela jardutean mugimendu sozialen bultzatzaile bihurtu bazen ere. Ideologikoki gizarte zibila ikuspegi politiko desberdinetatik aldarrikatua izan dela erakusten da. Neoliberalentzat merkaturia da gizarte zibila suspertu behar duena, hain zuzen, ekonomia delako gizartearen muina eta ardatza. Ezker sozial-demokratikoa eta kritikoa interbentzio estatala salatuz politikaren alor desberdinetan gizarte zibilaren parte-hartzea aldarrikatu du. Dena dela, Hirugarren Esparrua deritzogunean mota ezberdinetako elkarte eta erakundeak daude. Garbi dagoena zera da, Hirugarren Esparrua ez dela Estatu ezta Merkaturia ere. Bestalde, teoria eta praktikaren artean, beste behin ere eremu horretan, diferentziak nabarmentzen dira. Hirugarren Esparruan aurkitzen dugun alde positiboak herritarren parte-hartzearen bidez berpolitizazio eta demokratizazio dinamikak bultzatzen ditu. Alde negatiboak dagokienez finantziario- eta profesionalizazio-arazoak aurkitzen ditugu. Lehenak, diru-laguntzen bidez botereari lotzera eraman dezake. Bigarrenak, burokratizazioa ekar dezake. Era berean publizitate beharrak benetako helburu eta printzipioetatik zokoratzen eraman dezake. Gainera Hirugarren Esparruak, zenbait pertsonaren insertzio laboralera bideratuz, merkantilizazioan amaitu dezake. Hala ere, Hirugarren Esparruan gertatzen den orok ez dirudi merkantilizazio-gaitasunik duenik horrela afektibitatearen dimentsioko lan anitz, ezin da soldata baten bidez erosi. Hirugarren Esparruan berpizkundearen bidez demokratizazioa,

elkartasuna eta parte-hartzea susta daitezke. Horrela, esparru horiek landu nahi baditugu Hirugarren Esparruaren berpolitizazioa behar-beharrezko zaigu.

Irakurleak, honezkero, konprenitua du gogoeta ezberdinak izanik ere, ardatz beraren giran dabilzala. Argi eta garbi zerbait gelditu bada, berriz, hauxe da: Aristotelesen idatzitik gaurdainoko historian subjektu politikoak anitz aldaketa izan dituela. Hasteko, emakumeak, orduan ez bezala, subjektu izaera lortu duela, oraino, atzerapen handiak baditu ere simetrikotasunari begira. Merezi zuten jardunaldi hauek.